

Herriko txikiak, antzezle

Haur eta gazte irurarrek antzerki emanaldia eskaini dute Kulturunean ▶ 5



Harpidedunei banatua ▶ Osteguna ▶ 2006-01-05 ▶ IV. urtea ▶ 780. zenbakia ▶ www.tolosaldekohitza.info

Bi eskualdeetako taberna gehienetan erretzen utziko dutela erabaki dute jabeek

LEGEA ▶ Duela lau egunetik da indarrean Espainiako Tabakoaren Aurkako Legea; orain arte aldaketa handirik ez dutela nabaritu adierazi diote HITZari tabernetako, estankoetako eta farmazietako ordezkariak ▶ 2



Erretzeari uzteko produktuak, farmazietan. I. ETXEBESTE



Dena prest Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeei ongietorria egiteko

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶ Erregeen laguntzaileak iritsi dira gurera (irudian, atzo, Leitzan), Meltxorren, Gasparren eta Baltasarren etorrera iragartzeko. Gaur, agenda betea izango dute, bi eskualdeetako herriak bisitatuko baitituzte. J. ASTIBIA ▶ 4

TOLOSA ▶

Erregetako XIX. Xake Txapelketa, Aurrera elkartean

Jose Antonio Insaustiren omenez, bihar, 10:00etan ▶ 6

IBARRA ▶

Etziko derbirako gogotsu da Ibarra areto futbol taldea

Donostiako UPVren aurka jokatuko du, Belabietan ▶ 7

VILLABONA ▶

Gabon Abesti Sariketa Probintziala irabazi du Eresargi abesbatzak

Eresargi Txikik, brontzeko bi domina ▶ 5

TABAKOAREN AURKAKO ESPAINIAKO LEGEA ▶

CRISTINA GONZALEZ
IURRE TXOKOLATEGIA

«Egia da jende gutxiago etortzen dela egunotan, ohiko bezero batzuk erre daitekeen beste leku batzuetara joan direlako»

EGOITZ GOIKOETXEA
ORBELA TABERNA

«Taberna egunez bakarrik irekiko banu ez nuke erretzen utziko, baina gauzez ere zabalik egotean, ezin dut egin»



Egoitz Goikoetxea, Orbela tabernako arduraduna. I. ETXEBESTE

MARTIN ALZUETA
BABES TABERNA

«Erretzen uzten dut, nire bezero gehienak erretzaileak direlako; ez direnak berdin etorriko dira, hala ere»

Kerik gabekoak, gutxi

Espainiako Tabakoaren Aurkako Legea indarrean da duela lau egunetik; gure bi eskualdeetako taberna gehienetan erretzen utziko dutela erabaki dute jabeek

NOELIA LATABURU
IRATXE ETXEBESTE

Tolosako ia taberna gehienetan bezala, erre daiteke Asteasuarran ere; «erretzen ez dutenek berdin-berdin jarraituko dute etortzen». N. LATABURU

«Orain arte ez dugu aldaketa nabarmenik nabaritu; goizegi da balantze egiteko». Horixe da Tolosaldeko eta Leitzaldeko tabernetako, estankooetako eta farmazietako ordezkariak, orokorrean, tabakoarekin zerikusia duen lege berriari buruz esan dutena. Tabakoaren Aurkako Espainiako Legea indarrean da urtarrilaren 1etik Hego Euskal Herrian, eta baita gure bi eskualdeetan ere.

«Herriarrak galdezka hasi dira haur txikiekin tabernara sartu ote daitezkeen», dio Benito Usabiaga, Asteasuarrak tabernako jabeak. Lege berriaren aurrean hedabideek «nahasmena» sortu dutela uste du, «Tolosan, behintzat, ez delako ia deus aldatu». 100 metro koadro baino gehiagoko azalera duten edaritegi eta jatetxeetan gune isolatuak jarri behar dituzte erretzaileentzat. Horretara derrigortzen ditu legeak tabernetako eta jatetxeetako arduradunak. Taberna txikiagoetan, berriz, jabearen esku dago erre daitezkeen edo ez erabakitzea. Gisa horretarako dira Tolosaldeko eta Leitzaldeko taberna asko, eta gehienetan *Erre daitezkeen gunea* dioen kartela zintzilikatu dute atarian. Orain bi aste bilera egin zuten Tolosako tabernetak, eta horixe adostu zuten: alegia, orain arte bezala, tabernan erretzen uztea.

Usabiagaren hitzetan, «telebistan azaldu nahi dutena baino txikiagoa» da aferra; jendea «ez dago hain haserre» neurri berriarekin; hortaz, «erretzen ez dutenek berdin-berdin jarraituko dute erre daitezkeen tabernetara joaten». Egoitz Goikoetxeak «gauekoagatik» egin du Orbela tabernan erretzea posible izateko hautua: «Taberna egunez bakarrik irekiko banu ez nuen erretzen utziko, baina gauzez ere zabalik dagoenez, ezin dut hori egin». Bere ustetan, «aurrerapausoa» baino ez da oraingoa: «Momentuz ez da asko aldatu; pixka bat kontzientziatzea ez dago gaiz-

ASUN ZABALA ▶ TOLOSAKO ZABALA ESTANKOKO ARDUNADUNA

«Legea gizakiaren askatasunaren mugan dago»

Estankoen merkaturan ere eragin zuzena izango du legeak. Hitzak Tolosako estanko bateko arduradunarekin hitz egin du, legearen kalte eta onuren inguruan, eta eraginen inguruan oro har.

Tabakoaren aurkako lege berria indarrean da. Zer eragin izan ditzake zuengan?

Oraindik goiz da hori baloratzeko, baina denborarekin salmenta kopuruan nabaritutako da; dena den, tabakoarena merkatu segurua da. Guk orain lan gehiago dugu, baina marka merkeak saltzen ditugu gehien.

Erretzaile kopurua jaitsiko ote al da benetan?

Jende askok utziko dio erretze-ari pixkanaka-pixkanaka. Baina tabako merkeak ez du horretan laguntzen; izan ere, gazteek eskuragarriago dute tabakoa hauekin eta Osasun Ministeritzak irtenbide bat eman beharko du hau gelditzeko.

Legearen aldekoa al zara?

Tabakoaren aurka zerbait egin behar dela uste dut, eta legearen alde nago baina ez erabat. Gizabanakoaren askatasunaren mugan dagoela iruditzen zait. Egun batetik bestera gau-

zak aldatzea ez da erraza. Zentzuzko gauzak ere daude, inorrek ez baitu osasun zentroetan edota zerbitzu publikoetan erretzen.

Nabari al da dagoeneko ondorioak?

Hemendik aurrera ezingo ditut nire produktuak erakusleihan aurkeztu, hau da tabakoa, eta hori ez zait ondo iruditzen. Gainera, orain jendea gehiago mugitzera behartuta dago; izan ere, taberna askok lehen tabakoa saltzen zuten eta orain debekaturik dute. Jendeak estankooetara edota beste salmenta puntuetara jo behar

du orain. Gasolindegiana oso adibide garbia da, orain ezingo dutelako tabakoa saldu. Bertan mugitzen zen merkatu bolumena beste puntuetara zabalduko da. Ogasunak ere biltzen zuen diru kopurua gutxituko du.

Eta epe luzera izango al da ondorioak?

Epe luzera nabaritutako dira benetan ondorioak. Espainiako estatuak esandakoaren arabera, hemendik 10 urtera erretzaile kopurua %10 jaistea da helburu. Ez dakit horrelakorik lortuko ote den, baina jaitsiko delakoan nago. ◀

ASUN ZABALA
ZABALA ESTANKOA

«Epe luzera nabarituko dira benetan ondorioak; Espainiak uste du hamar urtean %10 jaitsiko dela erretzaile kopurua»

BENITO USABIAGA
ASTEASUARRA TABERNA

«Erretzaile ez direnek berdin-berdin jarraituko dute etortzen; telebistan azaltzen dutena baino txikiagoa da afera»



Benito Usabiaga, Asteasuarra tabernako jabea. I. ETXEBESTE

NEREA LETAMENDIA
OLARREAGA FARMAZIA

«Erretzeari uzteko ezinbestekoa da borondatea izatea; sendagileek eta guk laguntza eskaintzen diegu hala nahi dutenei»



Tolosako lurre txokolategian tabakoa saltzen zuten orain arte; orain tabakorik gabeko gune izatea erabaki du arduradunak. I. ETXEBESTE



Erretzeari uzteko produktuak gero eta ugariagoak dira farmazietan: txikleak, partxeak, pilulak... I. ETXEBESTE



Estankoetako erakusleihoetan ez dago tabako markarik iragartzetik; bestelako produktuak jarri behar izan dituzte Tolosako Zabalan. I. E.

Erretzeari uzteko neurriak

Farmaziek produktu asko jartzen dituzte erretzaileen eskura menpekotasuna gainditzeko: partxeak, txikleak, konprimituak...

I. ETXEBESTE - N. LATABURU

Asko eta asko dira tabako erretzaileak. Bi eskualdeko farmaziek hauen eskura neurri ezberdinak jartzen dituzte, menpekotasun honi aurre egiteko. Neurri hauek, ordea, aspalditik garatzen dituzte, eta ez legearen ondorioz. «Oraindik goiz da legeak erretzeari uztea animatu ote duen baloratzeke», azaldu du Etxebeste farmaziako langileak. Jendeak prezioa galdetzeraz, txikleak erostera eta bestelako neurrien berri izatera hurbildu da farmazietera egunotan, baina ez «legearen aurretik baino askoz gehiago». Ez da nabari, bada, lege berriaren ondorioz, oraindik bederen.

Tabakoa behin-betiko uzteko txikleak, partxeak eta konprimituak bezalako produktuak daude salgai farmazietan, baina hauen guztien gainetik «norberaren borondatea» da garrantzitsua, Olarreaga farmaziako Nerea Letamendiak

azaldu duenez. Haren esanetan, «dehenik eta behin pertsonaren menpekotasun mota eta maila aztertu behar da». Izan ere, kasuan kasu, erretzailea zigarroa piztera behartzen duen arrazoia ezberdina da. Horretarako, test batzuk banatik garatzen dituzte farmazian, non menpekotasuna aztertzen den. «Erretzaile batzuek antsietatea dela-eta erretzen dute; beste batzuek, berriz, nikotinari dioten adikzioa dela eta». Aipatu testak motibazio eta menpekotasun mailak neurtzen ditu eta lortutako emaitzen arabera tratamendu ezberdinak eraman behar ditu erretzaileak, protokolo bat jarraituz. Sendagilearen laguntza ere garrantzitsua dela adierazi du farmaziako langileak, tratamendu batzuk zorrotzak baitira eta errezeta behar baitute. «Laz ere, ikastaro txiki bat burutu nuen hemen lau erretzaileekin. Osasun Ministeritzak bultzatuta». Ezinbestekoa erretzeari uzteko motibazioa izatea dela aitortu

digu Nerea Letamendiak. «Gure lana, gehienbat, jendea aholkatu ahal izatea da, eta azken erabakia erretzailearen beraren esku dago». Bada ere erretzailerik tabakoa utzi nahi ez duena edota gaixotasunaren ondorioz behartuta utzi behar duena. Informazioa duten eskuorriak ere banatzen dituzte, non erretzaileak erretzearen aldeko eta kontrako arrazoiak topa ditzaken. Ondoren, berak egin dezake azterketa sakona.

Lege berriak erretzaile kopurua jaitsi «beharko lukeela» uste du Olarreaga farmaziako langileak, baina emaitzak «epe luzera» nabarmenduko direlaokan dago. «Astebete ere ez da pasatu legea indarrean dagoela eta guk ez dugu aldaketa handirik nabaritu». Dena den, partxeen salmenta «zer edo zer» igo da eta jendeak interes handiago eskaintzen die produktu hauen prezioei. Aukerak izan badira menpekotasunari aurre egiteko: erabakia, hori bai, norberaren esku dago.

ki). Erretzaile ez direnek orain arte bezala, tabernan sartzen jarraituko dutela, baina kexatzeko aukera gehiago izango dituztela uste du Egoitz Goikoetxeak.

Martin Alzueta Tolosako Babes tabernako jabea da, eta erretzen uzten du bere tabernan. Izan ere, «nire bezero gehienak erretzaileak dira». Hala ere, erretzen ez dutenek ere tabernara sartzen jarraituko dutela dio. Ez du aukera hori egin lurre txokolategiko Cristina Gonzalezek. Urtarrilaren 1a arte tabakoa saltzen zuen bertan, baina urte berriatik aurrera ez du hala egiten, «ez eta egingo ere». Ados dago tabakoaren kontrako legearekin, eta orain

ez du bere txokolategian erretzetan uzten. «Eztarriko arazoak ditut, eta kalte egiten dit tabakoak. Oraindik ez da asko nabaritzen, baina egia da jende gutxiago izan dugula egunotan, ohiko bezero batzuk beste leku batera joan direlako», esan du Gonzalezek: «Hala ere, beste batzuk etorri egingo dira beste lekuetan tabakoaren kea jasan ezin dutelako».

Txokolategian haurren urtebetze festak ospatzen dituztela, eta haurrei kerik ez egoteak mesede egiten diela adierazi du lurreko jabeak. Tabernetakoek, osteraz, esaten dute tabakoaren keak baino «kalte handiagoa» eragiten dutenak ba-daudela kalean.

ERREGE MAGOAK ▶

JAIONE ASTIBIA

Atzo iritsi ziren antortxa-argiz eta tronpeta soinu inguratuta, hainbat gizaki misterioitsu, «Meltxor, Gaspar eta Baltasar, Hiru Errege Magoen laguntzailak gara eta Gure Maiestateek herri honetara etortzeko egin behar duten bidea ezagutzera gatz», esanez aurkeztu ziren.

Horrela, bada, eta bide batez beren ingurura bildu ziren hainbat eta hainbat umeren eskutitzak jaso zituzten, gaur etortzerako, dena prest-prest izateko asmoz, eta herri bakoitzean Ekialdeko Azti Errege hauei eginen zaizkien ongietorrietako protokoloak nondik norakoak izanen diren ere jaso zuten. Herri askotara etortzekoak badira ere, «gure nagusiak oso azti onak izaki, guztietara iritsiko dira», baieztatu zuten, ziur-ziur.

Aitatzekoa da Errege Mago hauek Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietara ere etortzekoak omen direnez, euren agendaren atal bat eskuratuarazi diotela HITZARI, gure bi eskualdeetako herritarrei beraien ibileraren berri eman diezaien eta «puntuak-puntuak izateko» eskaera eginez.

Horrela, bada, gu ere herrietako arduradunekin harremanetan jarri gara eta agenda horren inguruan hainbat ñabardura egin nahi izan dituzte lekuan leku. Esate baterako, Berastegin, Errege Magoek plazan egonen den Jaiotza bizidunari bisita egitean, «urra, mirra eta intzentsua» ekarriko dituzte opari eta gero udaletxera igo eta umei hitzaldia egiten omen diete, baina hauen hizkuntza bitxia den arren, «daisai egoteko» eman dute jakitera bertako iturriek, «itzultzaileak prest» omen dute eta. Goxokiak eta opariak banatuta, bidetara jarraituko diote.

Leitzan ere, euren antortxadun laguntzaileekin eta «gurdia bete oparirekin», zaldiz etorriko dira herritarrei agur eginez, bidera aterako zaizkien herriko txistularien atzetik, Lopeneko atariko Jaiotza biziduneraino. Bertan Asketa abesbatzak egiten die herriera eta gero Belenekoei Opariak utzita, herriko plazara jarraituko dute bisitarekin, han umeek banaka-banaka Erregeekin egoteko modua izanez eta goxokiak banatuz. Uitzaldi aldetik joanen dira.

Iruran ere «zeremonia» guztiak egiten dizkiete: herriari bisita bertako musikariek lagunduta egiten dute eta behin plazara iritsitakoan, Ohorezko *Agurra* dantzatuko diete, eta bertako Jaiotza biziduna bisitatu ondoren, «Erregeek herriko ume guztiak dei

Meltxor, Gaspar eta Baltasar arratsaldean iritsiko dira

Hiru Errege Magoen etorrera iragartzera paje-laguntzaileak etorriak dira eta herrietako gaurko ongietorrien hitzorduz beteta eramana dute agenda atzokoan



Gaur iluntzean iritsiko dira Hiru Errege Magoak herrietara, iazko Leitzako irudi honetan bezalatsu. J. ASTIBIA

eginen diete banaka-banaka, euren opariak eta goxokiak jasotzera joan daitezkeen», handik jakitera eman dute-nez.

Eta Tolosan ere, aditzera eman dutenez, «400 haur inguruk» parte hartuko dute ongietorri ekitaldian eta herriari zehar Erregeekin egiten duten Kabalgatan. Bertan, modu batera edo bestera, erraldoiek, Tolosako Musika Bandak, dultzainariak, Jaiotza lehiaketako partaideak (14 talde lehiatu dira), Udaberri dantza taldeak, soinu-joleak, txistulariek... hartuko dute parte, antortxadun baseritarren eta krisieluen argitan. Trianguloan egonen den Jaiotzan geldialdia egiten dute kasu honetan ere Erregeek.

ERREGE MAGOEN KABALGATAK ▶ HERRIZ HERRI

ALEGIA

12:00. Dantza taldea, trikitixaz lagundurik herriko kaleetan zehar dantzan ibiliko da, egun osoan zehar.

18:00. Antortxariak, Erregeekin batera ibiltzen diren herriko umeak, plazan elkartuko dira antortxak jasotzera.

19:00. Udaletxe aurreko plazan Erregeei ongietorria egin eta Kabalgata egiten dute ondoren.

AMEZKETA

17:00. Zubillaga auzoan elkartu eta garai bateko ohiturei jarraituz ibiliko dira, denak artzain eta artzain-andrez jantzita. **Antolatzailea.** Gazte Taldea, guraso elkartearen laguntzarekin.

ANOETA

19:00. Basagain menditik irtengo da Errege Magoen kabalgata, Loatzo Musika Eskolako ikasleek alaiturik, eta herriari zehar ibiliko dira.

Ondoren. Pilotalekuan, Erregeek goxokiak banatuko dituzte.

ARESO

18:00. Errege Magoak ebex ebe ibiliko dira eta benetako

opariak banatuko dituzte non-nahi.

Antolatzailea. Kultur taldea.

ASTEASU

20:00. Errege Magoak herrira etorri eta kabalgata egiten dute.

BERASTEGI

18:30. Herriko plazan Jaiotza biziduna egiten dute.

19:30. Hiru Errege Magoak herriko plazara bertara iritsiko dira elizaldetik.

BERROBI

20:00. Errege Magoak Larte eta Seskea baserri aldetik iritsiko dira herrira, eta plazarantz joanen dira Kabalgatan.

20:30. Herriko plazan Errege Magoei harrera egiten diete.

Ondoren. Hantxe bertan umei opariak banatuko dizkiete.

IRURA

18:00. Plazan, Jaiotza lehiaketako sarien banaketa egiten dute.

18:30. Hantxe bertan, txokolate beroa bizkotxoekin banatuko dute.

19:00. Loatzo aldetik etorriko dira Erregeak eta Mendiondotik hasita kabalgatan ibiliko dira herriari barrena, plazaraino.



Atzo, pajeak Leitzan. J. ASTIBIA

Ondoren. Plazan dagoen Jaiotza biziduna bisitatu dute eta ongietorri ekitaldia egiten diete.

Jarraian. Erregeek opariak eta goxokiak banatuko dizkiete herriko ume guztiak. Gero, herriko alkateak agurtuko ditu.

LEITZA

18:30. Zaldiz, Plazaolako estazio aldetik iritsiko dira herrira Hiru Errege Magoak eta kabalkadan joanen dira Lopeneko atariko Jaiotza bizidunera. Hura bisitatu eta ongietorria jaso ondoren, plaza aldera jarraituko dute, han umei goxokiak banatuz.

Ondoren, Uitzaldi aldetik joanen dira euren bisitekin jarraituzera.

Antolatzailea. Aurrera.

TOLOSA

19:00. Izaskundik jaitsiz sartuko dira herrira eta Santa Klaratik hasita Kabalgatan, herria bisitatu dute: Izaskun, Santa Klara, Nafarroako Zubia, Solana kalea, Castilla arkupea, Trianguloko Belena, Gorosabel, Gorriti plaza, Barrena kalea, Korreo kalea, Solana kalea eta Plaza Zaharra izanen dute ibilbide. Hemen, harrera egin eta udaletxera igoko dira, batzar aretoan haurrek eskaerak egiteko aukera izanen dute.

Antolatzaileak. Ttentte eta Kirikiño aisialdi taldeak eta Kale Hezitzaileak taldea.

VILLABONA

19:00. Amasatik barrena aterako da Errege Magoen kabalgata, herriari zehar bisita egin eta Errebot plazaraino. Han egonen den Jaiotza biziduneari, agurra egiten dute.

ZIZURKIL (BIHAR)

11:00. Zizurkil Goiko San Millan elizan emanen duten mezara joanen dira Errege Magoak.

Ondoren. Zimiteiuan, Erregeek opariak banatuko dituzte.

Ondoren. Errege Magoek Fraisorora bisita egitera joanen dira.

VILLABONA ▶ MUSIKA



Gabon Abesti Sariketa Probintzianaren parte hartu zuten Eresargi abesbatzako zenbait kide. HITZA

Gabon kantetan berriro irabazle Eresargi

Erreterian egin den Gabon Abesti Sariketa Probintzianaren lehen saria eraman dute abesbatza federatuen mailan

IMANOL GARCIA

Erreterian egin den Gabon Abesti Sariketa Probintzianaren Villabonako Eresargi ahots nahasietako abesbatzak lehenengo saria eskuratu du abesbatza federatuen mailan. Aurtengo honekin jada bigarren aldia da irabazten duena, iaz ere lehendabiziko saria eskuratu baitzuen. Gabon sariketa honetan 12 aldiz parte hartu izan arren hirugarren sariak besterik ez ditu lortu ditu pasa den urtera arte. «Azken urte hauetako lana fruituak ematen ari delako, eta horrela lanean jarraitzeko animoa ematen duelako, poztekoa da», adierazi dute Eresargi abesbatzakoek.

Aurtengo lehiaketan bi abesbatzek soilik parte hartu dute, Villabonakoak eta Donostiako Ereski abesbatzak. Beste urteetan lau abesbatzek parte hartu

izan dute, iaz, esaterako. Eresargik bi kanta abestu zituen: Villabonako bandako zuzendari eta parrokiako organista izan zen Luis Oarritxenaren *Zortziko de Gabon* abestia eta Javi Bustoren *Lux fulgebit (Izar berri bat izenarekin euskaratu zutena)*.

Lehiaketa hori ez da Eresargik aurreko hilean egindako ekitaldi bakarra. Gabonetako kontzertua eman zuten Villabonako elizan abenduaren 20an, eta Gabon egunean Amasatik eta herrigunetik abesten aritu ziren. Azken honetan ateratako dirua HIESa duten gaixoei laguntzen diharduen elkarte bati eman zioten. Pasatu berri den hilabete horretan ere hogeitau urte bete zituen abesbatzak, eta urteurrena ospatzearen inguruan badute proiektu bat: disko bat grabatzea. Oraindik ezin dute zehaztu noiz egingo

duten grabaketa, baina urte honetan burutuko dutela ziurtzat jo dute.

Txikienek, brontzekoak

Eresargi Txiki abesbatzak ere parte hartu zuen Gabon Abesti Sariketa Probintzianaren. Bi taldeetan banatu ziren, txikiak eta gaztetxoak, eta biak brontzeko domina lortu zuten. Arantxi Padilla zuzendariak azaldu duenez, «gure ikuspuntutik oso ondo etortzen da lehiaketa horretara joatea. Aitzakia da lana egiteko, kantak prestatzeko, eta haurrak motibatuzeko balio izaten dute». Balarazio positiboa egiten du Padillak, beraz, horrelako lehiaketara joateari buruz, eta haurrek nola bizi duten nabarmendu du: «Emozionatu egiten dira. Urduri jartzen dira eta hori guztia bizitzea ona da».

IRURA ▶ EGUERRIAK

Herriko gaztetxoek eta haurren emanaldiak

'Manbruren zain' eta 'Holywood-eko izarrak' antzezlanak eskaini zituzten atzo Kulturunean



Txikienek *Manbruren zain* antzezlan irakurria eskaini zuten —goiko argazkian— eta DBHkoek *Hollywood-eko izarrak* —behekoa—. i.g.

I. GARCIA

Irurako Eguberrietako egitarauaren baitan atzoko egun berezia izan zen. Ohi bezala, ikusleak irurarrak izateaz gain, ikuzkizuna eskaintzen ari zirenak ere herriko haur eta gaztetxoak izan ziren. Bi emanaldi eskaini zituzten Kulturunean. Alde batetik, liburutegiko Haur Txokotik sortutako LH3 eta LH4ko talde batek egindako antzerki irakurria, Alex Lasa Kultur teknikariaren laguntzaz prestatutakoa. *Manbruren zain* zuen izena antzerkiak, eta mezu oso garbia

ematen zuen: ingurumenarentzako zuhaitzek duten garrantzia. Bestalde, Gaztelekuaren elkartzen den DBHko zenbait gaztetxok *Hollywood-eko izarrak* emanaldia eskaini zuten, ikuzkizuna eskaintzen ari zirenak ere herriko haur eta gaztetxoak izan ziren. Bi emanaldi eskaini zituzten Kulturunean. Alde batetik, liburutegiko Haur Txokotik sortutako LH3 eta LH4ko talde batek egindako antzerki irakurria, Alex Lasa Kultur teknikariaren laguntzaz prestatutakoa. *Manbruren zain* zuen izena antzerkiak, eta mezu oso garbia

Bihar amaituko dira Iruran antolatu den Eguberrietako egitaraua, jaiotzen lehiaketako sari banaketarekin, txokolate beroa hartuz eta Errege Magoen kabalgatarekin.

hitza
egunkariaren aldeko
Bertso-jaialdia
— ORDIZIA —
2006ko urtarrilaren 6an, ostirala
Majori Kiroldegian - 18:00etan

Sarrerak aurrez salgai (8€):
Ordizia: Ebaniz
Beasain: Goierriko Hitzaren egoitza
Loizaz taberna
Zaldibia: Itati taberna
Lazkao: Gerniko liburutegia
Urretxu: Goierriko Hitzaren egoitza
Egun berean (10€)

TOLOSA ▶

**Musika
Bandaren eta
txistularien
emanaldia**

Errege egunean kontzertua eskainiko dute Gorosabelgo entzutegian

N. URBIZU

Bihar Udal Txistulari Bandak eta Tolosako Musika Bandak Erregeetako kontzertua eskainiko dute, 12:30ean, Tolosako Musika Eskolako aretoan (Pablo Gorosabelgo entzutegian). Bi ataletan banatuko da saioa: lehen zatian txistulariak arituko dira, eta 3 obra eskainiko dituzte: Miguel Matamorosen *Zin-itx* (Ander Letamendiak moldatuta), *Bohero eta Kontradantza* (Juan Inazio Ansorenak egindako moldaketekin), eta *Gorulari dantzak*. Hirurak Iñaki Letamendiaren zuzendaritzapean izango dira.

Bigarren zatian Musika Banda ariko da, eta zuzendari Luis Mari Gartzia izanen da joko dituzten 9 obratan: Eduardo Mokoroaren *Errege jaia*, Johann Strauss II austriarraren *Marcha persa*, *Annen polka*, *Perpetuum mobile*, *Udaberriko hotsak*, *Czechen polka* (estrainekoz, jendaurrean inoiz jo ez duten obra baita), *Unter Donner und blitz* (*Trumoi eta tximisten azpian*), *Radetzky mars*, eta Josef Straussen *Feuerfest polka*.

Kontzertua alaia eta mugitu samarra izanen da; izan ere, polken erritmoa dantzagarria eta arina izaten da, funtsean, polkak dantzak direlako. Gogoan izatekoa da ere Johann Strauss entzuteko aukerak ez direla anitzak, eta bere musika oso kalitate onekoa dela, XIX. mendeko musikariaren artean famatuenetakoa izanik.

TOLOSA ▶ XAKEA



lazko irabazleak: Javier Baroja hirugarrena, Sabino Etxeberria irabazlea eta Xabier Mujika bigarrena. HITZA

**Errege eguneko
XIX. Xake Txapelketa
jokatuko da bihar**

Aurrera elkarteak eta Tolosa-Ibarrako xake elkarteak antolatuko dute; 09:30ean zabalduko dute izen-ematea

NEREA URBIZU

Errege eguna gainean da eta, horrekin batera, jadanik 19 urtez egiten den Jose Antonio Insaustiren omenezko Tolosako Erregetako Xake Txapelketa. Aurrera Kirol Elkarteak eta Tolosa-Ibarrako xake elkarteak antolatzen duten txapelketa hau bihar jokatuko da, 10:00etatik aurrera, Aurrera-n bertan.

Parte hartu nahi duenak bihar bertan, 09:30etik 10:00etara, agertu behar du elkartearen, izena emateko. Xakean jokatzen dakien jende guztiari gonbita egin diote antolatzaileek.

Beti bezala, jokatzekeo modua honela izanen da: jokalariek bakoitzak 5 minutu emango ditu taularen aurrean, eta denbora horretan partidak bukatu egin behar dira. Partaideak bi multzotan banatuta egongo dira ligaxka honetan.

Jardunaldia bukatu ostean sari banaketa egingen da jokalariek guztien artean, eguerdi partean. Sari bereziak lehenengo hirurek izango dituzte, baina ia denek izango dute detaileren bat eta hamaiketako ederra eta bikaina, xakeak berarekin duen kontzentrazioa eta tentsio giro hori zertxobait baretzeko.

Iaz Javier Baroja eta Sabino

Etxeberria izan ziren bi multzotan onenak. Kanporaketak egin ziren ondoren, bi jokalariek hauek finalera iritsi zirenez. Baina, bukaeran, Xabier Mujikak Barojari finalerdian irabazi ostean, azken hau izan zen finala jokatuko zuena. Lehenengo urteko Xake Txapelketan Sabino Etxeberria izan zen garaile Mujikari irabazita, azkenean.

Jose Antonio Insausti hasiera xake torneoaren antolakuntzaz arduratzen zen, duela 40 urte inguru, hain zuzen ere. Aurrera elkarteko Santi Balza lehendakari dela, egun txapelketa hau ospe handia hartzen ari da, eta urteroko hitzordu garrantzitsu bilakatu da.

ALEGIA ▶

**Eskuz binakako
pilota txapelketa
hastear da**

Hilabete honetan eskuz binakako pilota txapelketa hasiko da Alegian. Abenduan bikoteek izena eman zuten ohiko tabernetan; dena den, oraindik ere jende gehiago apuntatu daitekeela azaldu dute antolatzaileek. Horretarako, 10 euro ordaindu behar dira bikote bakoitzeko. Asteartean lehenengo bilera egingen dute, txapelketaren nondik norakoak zehazteko, Kultur Etxean, 19:00etan.

ALEGIA ▶

**AKO-k egindako
egutegiak
eskuragarri**

Urtero bezala, Alegiako AKO aldizkariak argazki zaharretan osatutako egutegiak prestatu du, herrian banatzeko. Aste honetan etxeko bannatu dute, baina inork besteren bat lortu nahi badu, udal-letxean har dezake.

TELEFONOAK ▶

**Larrialdiak. ((112))
Osasuna.**

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitza autobus.: 948 221015
 - ▶ Taxis: 670420
 - ▶ Taxis (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

ERREDAKZIOA

Eguberrietako geldialdiaren ostean eta urtea emaitza onekin amaitu ondoren, partida garrantzitsuari aurre egin behar dio etzi Ibarra areto futbol taldeak, Donostiako UPV-ren aurkako derbia, hain zuzen ere. Partida Belabietan kiroldegian jokatuko du, 18:30ean.

Ibarrakoen prentsa ardura-dun Jose Manuel Tobiasek azaldu bezala, Cesar Rocaren mutilak ederki prestatu dira partida horretarako eta «denboraldi osoan bezala, guztia emango dute» irabazteko helburuz. Ez dute lan erraza izango ibarretan; izan ere, pasa den urtean euren aurka jokatutako begiratuz gero bi porrotekin amaitu zituzten bi partidak, 2 eta 5 joanekoan eta itzulikoan, berriaz, 3 eta 2. Hala, talde donostiarrak 5. postuan amaitu zuen iaz, eta aurten 6.ean dago Ibarra baino 3

Etziko derbirako prestatu da etxeko taldea

Donostiako UPVren aurka jokatuko du Ibarra Belabietan; jubenilak Club Deportivo Logroñoren aurka lehiatuko dira

puntu gutxiagorekin. Entrenatzaileak jokalariek guztiak erabili ahaliko dituzte partidarako. Urtea ilusio handiarekin hasi dute etxekoek, eta euren asmoa Ibarra sailkapeneko gailurrera eramatea da. 5 asteetan partida bakarrik jokatuko dute; hori ez da oso berri ona eritimoa galdu baitezaket.

Jubenilak ere maila onean

Iazko denboraldi paregabea errepikatuko lanean ari da

Juan Pablo Zubelzu Txubel Ibarra jubenilen entrenatzailea. Izan ere, gogoratu behar dago pasa den urtean multzoko lehen postuan sailkatu zirela, eta Cadizen Espainiako Txapelketa jokatu zutela. Badirudi aurten ere bide berbera daromala, emaitza onak ari baita lortzen, eta 2. postuan dago sailkapenean. Haien aurretik Club Deportivo Logroño taldea dago hiru puntura eta, hain zuzen ere, euren aurka jokatuko dute ibarretan etzi, nagusien

aurretik, 16:15ean. Partida garrantzitsua, beraz, jubenilek dutena: irabaziz gero egoera onean jarriko lirateke. Txubel-en mutilek ez dute atsedetik izan Eguberrietan; halaber, jokalariek guztiak jokatuko moduan daude.

Kadeteak lehen postuan

Ibarra-Uzturpe kadeteen mailako taldea ere maila ona duela ari da erakusten. Mikel Sanzek eta Cesar Rocak entrenatzen

duten taldea eskola arteko txapelketan ari da jokatzen eta garaipen ugari erdietsi dituzte: berdinketarekin amaitu zuten partida bat eta beste guztiak irabazi dituzte; beraz, abantaila handiarekin, sailkapeneko lehen postuan daude. Asteburu honetan atsedetik izango dute; hilaren 14an ekingo diote berriro.

Areto futbolak goruntz egin du herrian eta, ondorioz, proiektu desberdinak ahalbidetzea posible izango da. Sortzen ari diren neska-mutilen taldeak zeresan handia du horretan; izan ere, gogotsu, ilusioarekin eta ikasteko grinarekin aritzen baitira.

Bestalde, areto futbol taldeek eskerrak eman nahi dizkiete partidak ikustera eta animatzera joaten diren zaleei, eta etzi izango diren bi partidetan ere euren babesa izan dezaten Belabietan kiroldegira gonbidatu nahi dituzte herritar guztiak.

KOMUNIKABIDEAK ▶

Eusko Jaularitzak eskatutako igoyeraren erdia baino gutxiago emango dio euskarazko prentsari 2006an

Sektoreak aurrekontuetan milioi bateko iguera eskatu zuen eta hazkundea 450.000ekoa da

ERREDAKZIOA

Eusko Jaularitzaren Kultura sailak ez du beteko euskarazko prentsaren sektorearen eskaera: 2006an prentsako hedabideen aurrekontuetan milioi bateko iguera izatea. Izan ere, Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak esan duenez, aurten iguera eskatutakoaren erdia baino gu-

txiago izango da: 450.000 eurokoa, komunikabide guztientzat banatzeko.

Euskarazko prentsaren sektoreak urrian eman zuen bere eskaeraren berri (sinatzaileen artean zen TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA). Izan ere, hazten ari den arloa da aipatutakoa, azkeneko urteetan proiektu berriak gauzatu direlako, baina Eusko Jaularitzaren Kultura

saillean ez zen errealitate berri- ra begira pausorik eman, aurrekontuetan ez zelako 2000tik 2005a arte igoyerarik izan. Harrezkero, sektoreko ordezkariak bilera batzuk izan dituzte Hizkuntza Politikarako sailburuordezarekin, baina honek ez du eskaera bete; erdia ere ez.

Baztarrikak esan du Eusko Jaularitzak 2006an, denera,

4.750.000 euro jarriko dituela komunikabideetan euskararen erabilera sendotzeko (iaz 3.800.000 euro jarri zituen), eta horietatik 500.000 telebista digitalentzat izango direla.

Ordainketa modua, bera

Sektoreak beste eskaera bat ere egin du: Eusko Jaularitzaren diru laguntzen zenbate-

koa urteko lehen sei hilabete-koan jakin eta ordaintzeko modua egitea, urtero oso berandu banatzen baita dirua. Eskaera hori kontuan hartuko duela esan du Baztarrikak, baina aurten «zaila» izango dela. «Sektorearen inguruko gogoe- ta egin nahi dugu, diru laguntzen eboluzioa ikusteko eta le- hentasanak non jarri behar di- ren jakiteko. Agian, aldatet- ak egingo ditugu». Hausnarketa hori sektoreko eragileekin egin nahi duela gaineratu du sailburuordeak eta horrek denbora eskatzen duela. «De- na dela, hitz ematen dugu 2007an diru laguntzen eza- penean lehen sei hilabeteetan ja- ki- naraziko ditugula».

hitza lagunena **txokoa**

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko urtarrilaren 5a, osteguna ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

09

hotzena

05

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe:

gaur: bai / bihar: bai

Pagomari:

gaur: bai / bihar: bai

Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jauriaritza. Kultura Saila



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Leitza. Euskal presoen aldeko afaria. 21:30ean, Erleta eskolako jantokian. Txartelak salgai Torrean, 25 euroren truke.
Tolosa. Errege Eguneko meza nagusian, bihar, Santa Mariako Musika Kaperak (abesbatza, orkestra eta organoa) Eduardo Mokoroaren *Pastoral* meza, Felipe Gorritiren *Gradual*, *Oi Bethleem* eta *Mesias* eskainiko ditu, Santa Maria parrokian, 11:00etan.
Tolosa. Erregetako Xake Txapelketa. Bihar, 10:00etatik aurrera, Aurrera elkartearen. Enrique Pinedaren omenez.
Tolosa. Laskorain Ikastolako urteroko Merkatu Txikia antolatuta du Kultur Etxean, Sahararen eta Boliviaren alde. Saharara bidaltzeko elikagaiak ere jasoko dituzte bertan. Etzi arte, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.
Tolosa. Herritarren parte-hartze jardunaldiak hilaren 13an eta 14an, arau subsidiarioez. Parte hartzeko deitu 943 69 74 50 telefono zenbakira.

ERAKUSKETAK

Alegia. Juani Alkortaren margolanak. Hilaren 9ra arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.
Tolosa. Manuel Lasarte bertsolari leitzarrari buruzko erakusketa. Hilaren 14a arte, Aranburu Jauregian.
Tolosa. Alejandro Tapiaren pinturak. Hilaren 28ra arte, Aranburu Jauregian.

MUSIKA

Anoeta. Txistularien kalejira herrian zehar. Bihar, 12:00etan hasita.
Tolosa. Udaltxistulari Bandak eta Musika Bandak Erregetako kontzertua eskainiko dute bihar, Pablo Gorosabeleko areto nagusian, 12:00etan.


GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
Leitza. Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Tolosa marrazkitan

I. MARRAZKI LEHIAKETA ▶ Aitorren, Mariaren, Andoniren eta Iñakiren lanak dira hauexek; bihar da marrazkiak ekartzeko azken eguna



TOLOSA ▶

Aitor Palencia (8 urte, Tolosa).

«Hau Berazubi da, eta han futboleak jokatzen nuen», dio gure lagun Aitorrek bere marrazkiaren azalpenean.



TOLOSA ▶

Andoni Elustondo Mahedero (10 urte, Tolosa).


Tolosako udaletxearen ingurua aukeratu du Andonik bere marrazkirako: «Nire herria oso-oso garbia dago».



TOLOSA ▶

Maria Ezquerro (10 urte, Tolosa).

«Zezen-plaza egin dut, zezenak eta zezenxoak ateratzen direnean ondo pasatzen dudalako», esan digu Mariak.



TOLOSA ▶

Iñaki Lasa Aranzasti (10 urte, Tolosa).

«Nire herrian, gauza ona: partiduak ikusteko badaukagula lekua; gauza txarra: soinu asko eta kutsadura», azaldu digu Iñakik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Ane.

Gaur 6 urte.

Zorionak etbekeen partetik.



URTE ASKOAN

Garazi. Hilaren batean

4 urte egin zituen.

Zorionak etbekeen partetik.



URTE ASKOAN

Mª Dolores Iraola (Anoeta).

Zorionak

senarraren partetik.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea** ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!